

KRONIKA.NET



GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

Gipuzkoako sagardoa, Alemanian

Egunotan, Apfelwein Festival sagarra eta sagardoaren inguruko festa arrakastatsua izaten ari da Frankfurten eta bertan dira Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko 28 sagardogile.

2013/08/13 - Asteartea

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko hainbat sagardogile Frankfurten daude (Alemania) Hessen inguruko sagardo mundua ezagutzen eta Apfelwein Festival festan parte hartzen. Alemaniako eskualde hori sagardo produktore haundia da eta sagarra eta sagardoaren inguruan Frankfurten antolatzen den festa horrek izugarrizko arrakasta du. Festibala abuztuaren 9tik 18ra da eta festa hori ikusi eta bertan parte hartzeaz gain, inguruko sagastiak, sagardotegiak eta sagardo mundua ezagutzeko aprobetxatuko dute bertara joan diren 28 sagardogilek.

Dastaketa komentatua

Gipuzkoako sagardogileak abuztuaren 8an iritsi ziren Frankfurtera eta egun horretan bertan, dastaketa komentatua egin zuten Gipuzkoako eta Hessengo sagardoaren artean. Horrez gain, Apfelwein Festival osoan, Gipuzkoako Sagardogileen sagardoak probatzeko aukera izango da.

Esperientziak trukatzeko

Bisita honekin, orain urtebete Hessengo sagardogileek Gipuzkoara egindako bisita bueltatu diete, helburua izanik, harremanak estutu eta elkarrekin esperientziak, jakintza eta proiektuak elkatrutzeko.

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali



**Axeri
bila 2013**
klik hemen



**Liburua
erosteko,**
klik hemen



Ibilbide Sarea:
Urruzuno

XII. AXERI BILA
EMAITZA GUZTIAK

Ibilbide Sarea:
Larregain

Ibilbide Sarea:
Oberan

Ibilbide Sarea:
Usokori bira

Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak

2013ko Martxoak 8 -
Udal Adierazpena

Parot doktrinari
buruzko mozioa

Saharako herriari
buruzko mozioa

Udal Baratzen araudi
orokorra

Gehigarria: Hemen

web mapa | kontaktua

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005